



FUNTSEZKO JARDUERAK

Hasteko, Étagère egiteko, apala diseinatu beharko dugu, eta hau diseinatzeko orduan web orrialde bat egingo dugu gure informatikariaren laguntzaren bitartez. Web orrialde honetan, Étagèreri buruzko informazioa, guri buruzko informazioa eta hau erosteko aukera ere izango da, baita gurekin harremanetan jartzeko informazioa ere. Horretaz gain, produktuaren hainbat pieza, guk gure tailerrean egingo ditugu, Étagèrearen muntaia egiteko:

Alde batetik, interneten iman berezi bat erosiko dugu, honekin apala paretan eustea ahalbidetu egingo dugu. Ondoren denda, behin arotzak bere zatia bukatua izanik, lokalera ekarri eta bertan imana eta hau lotuko ditugu. Etagerea guk diseinatutako kaxan, instrukzio guztiekin sartuko dugu, eta saltzeko prest egongo da gure produktua jada.

Produktuaren diseinua guk egingo dugu, naiz eta arotzarekin bat osatuko dugu zehazki nola izango den apalaren nondik norakoa. Materialaren eta apalaren garraioa kamioi enpresa banaketa bati utziko diegu. Beraiek arduratuko dira materialak ekartzeaz, eta eros dendara eramateaz.

Marketinari dagokionez, gure informatikariak étagèreri buruzko hainbat kanpaina egingo ditu: Instagram eta Facebook kontuak sortuko ditu. Bestetik, influencerrekin kolaborazioak egingo ditugu, produktua ezagunagoa egiteko eta Euskal Herriko irratian ere, produktuari buruzko informazioa ematera joango gara.